

Eskolagune

## Txingudiko hegaztiak

### ARLO/IKASGAIA:

- Natura, gizarte eta kultura ingurumenaren ezagutza

### ETAPA:

- Lehen Hezkuntza (1. Zikloa)

Gure egunerokoan hegaztiak oso presente izan arren, sarritan, ez diegu behar besteko arreta eskaintzen. Plaiandiko parke ekologikotik zehar planteatzen dugun ibilaldi honetan prismatikoak eta hegaztiak identifikatzeko gida eskuan hartuta izaki hegalaria horiek sakonago aztertuko ditugu. Espezie bakoitzaren izena ezagutzeaz gain, zein habitatean bizi den eta deskribapen fisiko bidezko identifikazioa jorratuko da.

